# IDZINGERA
# IDZING, IDZING, IDZING

**Language family: Niger-Congo, Atlantic-Congo, Volta-Congo, Benue-Congo, Bantoid, Southern, Narrow Bantu, Nortwest, B, Yanzi (B.80).**

**Language codes:**

**ISO 639-1 -**
**ISO 639-2 -**
**ISO 639-3 -**

**Beste izen batzuk (autoglotonimoa: ):**

di alt ding [DIZ].
din alt ding [DIZ].
ding [DIZ] hizk. DRC.
dzing alt ding [DIZ].

## KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA

ding (di, din, dzing) [DIZ] Bandundu Probintzia, Idofa Lurraldea, Kasai Ibaian. Niger-Congo, Atlantic-Congo, Volta-Congo, Benue-Congo, Bantoid, Southern, Narrow Bantu, Nortwest, B, Yanzi (B.80). Yanseraren hurbilekoa baina bereizia.

Hizkuntza / lengua: idzingera / ding / idzing / idzing.
Hiztunak / hablantes: (?).
Herrialdea / país: Kongoko Errepublika Demokratikoa.

| | |
|---|---|
| **HISTORIA**. Idzingera hizkuntza bantuen arteko interesgarrienetakoa da. Idzingerak bantuera primitiboa agertzen digu, inguruko hizkuntzengandik bereizi egiten baita. Hegoaldeko multzoekin ez du erlazio zuzenik, ez *luba*, ez *lunda*, ezta *kinbundu* multzoekin ere (azken honi esleitu behar zaizkio kikongoaren hainbat | **HISTORIA**. El idioma idzing es una lengua bantú de las más interesantes. El idzing nos revela un tipo de bantú muy primitivo, ya que se separa de los otros grupos de lenguas vecinas. No tiene relación directa con los grupos del sur, ni con el grupo *luba*, ni *lunda*, ni *kimbundu* (al que hay que adjudicar los diversos dialectos *kikongo*: |

| | |
|---|---|
| dialekto: kiyaba, kisuku, kimbala, kipende, kihuangana, kingongo, kikwese, ea.). Iparraldeko multzoekiko gertuago, baditu kidetasunak kitekekimfunukarekin eta kidiakizakata multzoarekin. Kidetasun txikiagoa erakusten du nkutshu-tshitetela multzoarekiko. Eliminazio hauen ondoren, nahitaezkoa da anbunen *inbunerarekin* (Babunda), bangolien *kingolerarekin* (Bangu) eta (gutxiago bada ere), bayantzien *kiyantzierarekin* asoziatzea. | kiyaba, kisuku, kimbala, kipende, kihuangana, kingongo, kikwese, etc.). Más próxima a los grupos del norte, presenta afinidades con el kitekekimfunuka y con el grupo kidia-kizakata, etc. Menos afinidad demuestra todavía con el grupo nkutshu-tshitetela. Tras estas eliminaciones, forzado es asociarla con el *imbun* de los ambun (Babunda), con el *kingol* de los bangoli (Bangu) y, aunque menos fuertemente, con el *kiyanzi* de los bayanzi. |
| Idzingerak monosilabo asko ditu, jatorriz bisilaboak zirenak. | El idzing posee gran número de monosílabos, que originariamente eran bisílabos. |
| **HIZKUNTZA**. Ezaugarri agusiak. | **LENGUA**. Principales características. |
| **Fonetika**. **A)** Idzingerak kontsonante xumeak ditu, konbinatuak, bokalerdi batekin konbinatuak eta afrikatuak. **B)** Bokal xumeak ditu eta diptongatuak. **C)** Erdian diptongo bat bakarra du eta ugari amaieran. **D)** Asimilazio bokalikoak eta kontsonantikoak ditu. **E)** Azentua hiztunaren nahiak seinalatzen du, perpausaren parta bat nabarmenduz. | **Fonética**. **A)** El idzing posee consonantes simples, combinadas, combinadas con una semi-vocal, africadas. **B)** Pose vocales simples y diptongadas. **C)** Sólo posee un diptongo mediano y numerosos finales. **D)** Posee asimilaciones vocálicas y consonánticas. **E)** El acento depende de la intención del que habla, quien destaca una parte de la frase. |
| **Morfosintaxia**. **A)** Izenak errepikatzeak produktuen ugaritasuna, egintzaren intentsitatea, zerbaiten perfekzioa ea. adieraz ditzake. **B)** Izenen arteko ukazioa | **Morfosintaxis**. **A)** La repetición de los sustantivos puede marcar la abundancia de un producto, la intensidad de un acto, la perfección de una forma, etc. **B)** La forma de la negación |

| | |
|---|---|
| partikulen bidez egin ohi da (*ati, ako, ka, tun*). **C)** Hiru aditz-aspektu ditu: *burutua, ez burutua* eta *zehaztugabea* eta aurrizkien bidez osatzen dira. **D)** Hiru aditz-erro eta bi aurrizki multzo ditu. **E)** Idzingeraz lehenengo sei zenbakiak adjektiboak bezala dira. 7, 8 eta 9 aldaezinak dira, nahiz ez beti. Hamarrekoak eta ehunekoak adierazten dituzten zenbakiak sustantiboen berdinak dira. Mila baino kantitate handiagoak adierazteko ez dago erantzun ziurrik. **F)** Idzingeraz lehenengo 10 zenbakiak hurrengoak dira: *ja* (1), *ɛl* (2), *sar* (3), *na/nna* (4), *taan* (5), *sjaam* (6), *nsaamboil* (7), *inaan* (8), *iwa* (9), *ikwum* (10).<br>**Idazkera**. Latindar alfabetoa. | de los sustantivos es la negación por partículas (*ati, ako, ka, tun*). **C)** Posee 3 aspectos verbales: *perfecto*, *imperfecto* e *indefinido* que se forman a base de prefijos. **D)** Posee tres radicales verbales y dos series de prefijos. **E)** El idzing trata los 6 primeros números como adjetivos. El 7, 8 y 9 son invariables, aunque no siempre. Los números que expresan decenas y centenas nada se diferencian de los sustantivos. Posee sistema decimal. Para cantidades superiores a mil resulta muy difícil obtener una respuesta segura. **F)** Los 10 primeros números en idzing son: *ja* (1), *ɛl* (2), *sar* (3), *na/nna* (4), *taan* (5), *sjaam* (6), *nsaamboil* (7), *inaan* (8), *iwa* (9), *ikwum* (10).<br>**Escritura**. Alfabeto latino. |

## GRAMATIKAK, METODOAK, ESKULIBURUAK

**GRAMMAIRE DE L'IDZING,** Les Ba Dzing de la Kamtsha, par R.P. Joseph Mertens, S.J., 25x16,5, 388 or., Bruxelles, **1938**.